

EKONOMI JARDUEREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA. 2019. URTEA

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta Zergaren Foru Arau berezian ezarritakoaren arabera, Ekonomi Jardueren gaineko Zerga eskatzen du ordenantza honen arabera. Ezar daitezkeen koefizienteak eta indizeen eskala ordenantza honetako eraskinetan adierazten dira.

2. artikulua.- Ordenantza udal mugarte osoan ezartzen da.

II.- ZERGA EGITATEA

3. artikulua.- 1.- Ekonomi Jardueri buruzko Zergaren egitate a udal mugartean burutzen diren enpresa, lanbide edo arte jarduerak osatzen dute, kontutan hartu gabe toki jakin batean egiten diren eta zergaren tarifetan zehazturik dauden ala ez.

2.- Zerga honen ondoreetarako enpresa jardueratzat hartuko dira abeltzaintza, norbere kontura egiten denean, meatzaritza, industri, merkataritza eta zerbitzuetako jarduerak. Beraz, nekazaritza, norbere konturako abeltzaintza, baso eta arrantza jarduerak ez dira enpresa jardueratzat hartuko. Eta horiek ez dute zergatiko egintza zergagarria osatzen.

Aurreko lerroaldean ezarritakoaren ondoreetarako, norbere kontura egiten den abeltzaintzat hartuko da hurrengo kasuotako dagoen abelburu taldea:

a) Aziendaren jabeak nekazaritzarako edo basogintzarako ustiatzen ez dituen lurretan bazkatzen duen azienda.

b) Landa finketatik kanpoko gortetan hazitakoa.

c) Larraz edo mugartez aldatzen dena

d) Finkatik kanpo ekoizten diren pentsuez elikatzen dena.

4. artikulua.- 1.- Empresa, lanbide edo arte jardueratzat hartuko dira honakoa betetzen duten jarduerak: ekoizpideak eta giza baliabideak edo horietako bat norbere kontura antolatzea, ondasunen edo zerbitzuen ekoizpenean edo banaketan esku hartzeko asmoz.

2.- Zergapeturiko jardueren edukia Zergaren tarifetan azaltzen da.

5.Artikuluak.- Zergapeturiko jarduerak burutzen direla frogatzeko, zuzenbidez onar daitekeen edozein bide eta, bereziki, Merkataritza Kodearen 3. artikulua ezarritakoak erabiliko dira.

III.- ZERGAPERIK EZA

6. artikulua.- Hurrengo jarduerak ez dira zerga honetako zerga egitate izango:

1.- Enpresetako aktibo finkoko ondasunen besterenganaketa, baldin eta ondasun horiek besterenganatu baino bi urte lehenago aktibo ibilgetu gisa ageri izan badira inbentarioan; eta saltzaileak berak erabiltzen zituen ondasunen salmenta, baldin eta ondasun horiek denboraldi berean erabili izan baditu.

2.- Norbanakoen lanak edo lanbide zerbitzuak ordaintzeko jasotzen diren gaien salmenta.

3.- Establezimendua apaintzeko erabiltzen diren gaiak erakustea. Aitzitik, zergapean egongo dira bezeroei oparitzeko diren gaien erakusketa.

4.- Eragiketa edo ekintza bakanen bat burutzea, txikizkako salmenta denean.

IV.- SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

7. artikulua.- 1.- Zerga ordaintzetik salbuetsita egongo dira:

a) Estatu, Euskal Autonomia Erkidegoa, Lurralde Historikoa eta toki erakundeak, eta baita horien erakunde autonomo administratiboak ere.

b) Nazioarteko itun edo hitzarmenak direla bide zerga ordaintzetik salbuetsita dauden subjektu pasiboak.

c) Gizarte Segurantzak kudeatzen duten erakundeak eta indarrean dagoen legediak ezarritakoaren arabera osatu diren mutualitate eta montepioak.

d) Ikerketa alorreko organismo publikoak eta Estatu, EAEko Autonomia Erkidegoa, Lurralde Historikoko Foru Aldundi edo Toki Erakunde edo ongintzazko nahiz erabilgarritasun publikokotzat aldarrikaturiko fundazioen bidez finantzaturako edozein mailako irakastegiak, hezkuntza-kontzertuko erregimenean daudenak, edota beren ikasleei liburuak edo bulego-artikuluak ematen dizkietenak, edo pentsio erdiko nahiz barnetegiko zerbitzuak eskaintzen dizkietenak, irakaskuntzara xedaturako lantegietan ateratako ekoizkinak, salbuespenez soilik, establezimenduan bertan saltzen badira ere, baldin eta salmentaren zenbatekoa, ezin norbanako ez eta inorentzat izan gabe, lehengaiak erosteko edo establezimenduari eusteko soil-soilik erabiltzen bada.

e) Ezindu fisikoen, psikikoen eta sentsorialen Elkarte eta Fundazioak, irabazi asmorik gabekoak, minusbaliatuen irakaskuntzarako, hezkuntzarako, birgaitzerako eta tutoretzarako gauzatzen diren izaera pedagogiko, izaera zientifiko, laguntzarako izaera eta lan-izaera duten jarduerengatik, establezimenduan bertan irakaskuntza horretara xedatutako lantegietako gaiak saltzen badituzte ere, betiere, partikularrentzat edo hirugarren pertsonentzat erabilgarritasunik gabe, lehenengo gaiak eskuratzera edo establezimendua sostengatzera bakar-bakarrik xedatzen direnean.

f) Gurutze Gorria eta horri parekagarriak diren eta Lurralde Historikoaren xedapenez zehazten diren beste erakundeak.

g) Jarduera gauzatzeari ekiten dioten subjektu pasiboak, zerga honen lehenengo bi zergaldietan.

Jarduera batean lehenago beste titularitate batekin aritu bada, jarduera horri ez zaiola hasierarik eman ulertzen da; zirkunstantzia hori betetzen dela jotzen da, besteak beste, bategiteak, zatiketak edo jarduera-adarren ekarpenak egiten direnean.

h) 2.000.000 eurotik beherako eragiketa-bolumena duten subjektu pasiboak. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunak direnean, salbuespena establezimendu iraunkorraren udez jarduten diren horietara bakarrik aplikatuko da, betiere 2.000.000 euro baino gutxiagoko eragiketa-bolumena dutenean.

Salbuespen hori aplikatu ahal izateko, kasu orotan beharrezkoa izango da subjektu pasiboak ez egotea partaidetuta, zuzenean nahiz zeharka, %25ean baino gehiago, hizki honetan aurreikusten den eragiketa-bolumenaren eskakizuna betetzen ez duten enpresez. Alabaina, enpresa horiek Sozietateen gaineko Zergari buruzko 7/1996 Foru Arauaren 59. eta 60. artikuluetan aipatutakoak badira (kapital-arriskuko fondo edo sozietateak edo enpresen sustapenerako sozietateak), subjektu pasiboak salbuetsita egongo dira baldin eta partaidetza hori sozietate horien xede soziala betetzearen ondorio bada.

Hizki honetan aurreikusten den salbuespena aplikatzeko ondoko arau hauek hartuko dira kontuan:

1. Eragiketa-bolumena Sozietateen gaineko Zergari buruzko 1996ko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 2. artikuluko 7. atalean aurreikusten denaren arabera zehaztuko da.

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboak badira, zerga horiek aitortzeko epea JEZaren sortzapena gertatu aurreko urtean amaitzen den zergalditik hartzen da eragiketa-bolumena. Sozietate zibiletan eta Zerga Foru Arau Orokorrek zehazten dituen entitateetan, zerga honen sortzapena gertatu baino bi urte lehenagotik hartzen da eragiketa-bolumena.

Zergaldia urtebete naturalekoa baino laburragoa bada, eragiketa bolumena urtearekin parekatuko da.

3. Subjektu pasiboaren eragiketa bolumena kalkulatzeko, subjektu pasiboak egindako jarduera ekonomiko guztiak hartuko dira kontuan.

Entitatea sozietate talde bateko kide denean Merkataritza Kodearen 42. artikuluari jarraiki, aurretik adierazitako neurriak talde horri dagozkion entitate-multzoari buruzkoak izango dira. Era berean, irizpide hori aplikatuko da pertsona fisiko bate, bera bakarrik edo odolezko nahiz ezkontza-ahaidetasuneko zuzeneko edo zeharkako ahaidetasun-loturaz, bigarren mailakoak barne, lotutako beste pertsona fisiko batzuekin batera, Merkataritza Kodearen 42. artikulua aipatzen dituen kasuren batean beste entitateetako sozio direnean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, Merkataritza Kodeko 42. artikuluko kasuak finkatutako urteko kontuen formulaziorako arauetako 1. Kapituluko 1. sekzioan biltzen direnak dira, eta horiek 1991ko abenduaren 20ko 1815/1991 Errege Dekretuaren bidez onartu ziren.

4. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunak direnean, eragiketa bolumena lurralde espainiarrean kokatutako establezimendu iraunkorren multzoari egotzi beharrekoa izango da.

i) Irabazizkoak ez diren erakundeak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira, irabazizkoak ez diren erakundeen zerga-araubideari buruzko otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauko 9. artikuluan aipaturiko ustiapen ekonomikoei dagokienez. Hala eta guztiz ere, erakunde horiek altaren aitortpena aurkeztu beharko dute zerga horren matrikulan, baita baxaren aitortpena ere, jarduerari amaiera emanez gero.

Salbuespen hau aplikatzeko, ezinbestekoa izango da irabazizkoak ez diren erakundeek aurreko irabazizkoak ez diren erakundeen zerga-araubideari buruzko otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauko 16. artikuluko 1. atalean arauturiko aukeraren erabilera Udalari jakinaraztea eta aipatu arauko II. titulu honetan arauturiko zerga-araubide bereziari lotutako baldintzak nahiz kasuak betetzea.

2.- Aurreko lerroaldeetako d) eta e) letretan arauturiko onurak eskatu egin beharko dira eta eman egingo dira, bidezkoa denean, alderdiak eskaturik.

3.- Kuotaren % 50 arteko hobaria jasoko dute udal kuotaren zerga ordaintzen duten subjektu pasiboek, baldin eta langileen batez besteko kopurua areagotzen badute, kontratu mugagabearekin, lantokian edo jarduera aurrera eramaten duten helbidean, hobaria aplikatu aurreko zerga aldiari, aurreko aldiari dagokionez.

Hobariaren portzentajeak, kontratu mugagabea duten langile kopuruaren igoeraren arabera, honelakoak izango dira:

Langileen % 10 igoera edo handiagoa...% 10 hobaria
Langileen % 20 igoera edo handiagoa...% 20 hobaria
Langileen % 30 igoera edo handiagoa...% 30 hobaria
Langileen % 40 igoera edo handiagoa...% 40 hobaria
Langileen % 50 igoera edo handiagoa...% 50 hobaria

Hobaria zerga-kuotari aplikatuko zaio, eta ez dio foru-errekarguari eragingo, tarifa-kuotari baizik.

Zergapeko jarduera bat aurrera eramaten duten subjektu pasiboek aintzatesten badute hobaria jaso dezaketela, hala aitortzea eskatu beharko dute, aldi konputagarriaren lehenengo hiruhilekoan, eta eskaerarekin batera aurkeztu beharko dituzte lan-kontratu mugagabeetarako dokumentu zehatza, erakunde eskudunean egindako alta-eskaerak, eta hobaria eskatu aurreko urtean subjektu pasiboak zituen langileen zerrenda, kontratu mota bakoitza adierazita. Udalak egoki deritzon egiaztapenak eta txostenak egingo ditu, eta horiek ikusita, eskatutako hobaria ematea edo ukatzea erabakiko du, eta interesdunari jakinaraziko dio.

Lan-sorreraren zenbaketarako aldi bateko jarduera-eremua eskaera aurkeztu aurreko ekitaldia izango da. Halaber, langileen batez bestekoa kalkulatzeko, aldi konputagarriaren aurreko urtea hartuko da aintzat.

Hobariak jaso ditzakeen lana izango da langileen batez bestekoa mantentzen duena; hala, kontratuak mugagabeak izango dira, eta langileen igoera garbia ekarriko dute, hau da, lan-kontratuak kontratazioaren aurreko urtean iraungi ez badira.

Subjektu pasiboek edozein aldaketaren berri eman behar dute, hobaria jasotzeko aurkeztu diren lanei dagokienez.

Salbuetsita daude aldi konputagarria hasi aurreko ekitaldian enpresa eskatzailean edo hari lotutako enpresetan zerbitzuak eman dituzten langileei egindako kontratazioak.

Ez dute hobaririk jasoko enpresen ondorengotzatik datozen edo forma juridikoa aldatzen duten kontratazioek.

Ez dute hobaririk jasoko langile autonomoen erregimen berezian dauden langileen kontratazioak eta altak, bigarren mailako odolkidetasunaren edo kidetasunaren arabera ahaideei egindakoak, enpresari, bazkide edo zuzendaritza karguak dituztenak edo enpresa administrazioetako kide direnak. Ez dira aintzat hartuko laneko edo gizarte segurantzako legedia hausten duten kontratazioak.

Subjektu pasiboek kontratazio egunetik aurrera langileen batez bestekoa mantendu beharko dute, baita hobaria jasotzeko sortutako lana ere.

V.- SUBJEKTU PASIBOAK

8. artikulua.- Zerga honen subjektu pasiboak dira Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Nagusiak aipatzen duen pertsona fisiko, juridiko eta erakundeak, baldin eta udalerrian zerga egitatea sortzen duten jardueretako edozein burutzen badute.

Aurreko artikuluko lehenengo ataleko a, b,c eta f hizkietan aipatzen diren subjektu pasiboak ez daude zergaren matrikulan alta-aitorpena aurkeztera behartuta.

VI. ZERGA-KUOTA

9. artikulua- Zerga-kuota zergaren tarifak aplikatzetik ondorioztatzen dena izango da, Foru Arauan eta hori barne hartzen eta garatzen duten xedapenetan jasotako arauen eta Foru Arauetan eta ordenantza honetan aurreikusten diren koefiziente, indize eta hobarien arabera.

10. artikulua- Zergaren tarifak 1991ko apirilaren 30eko 1/1991 Foru Dekretu Arauemailean jasotakoak dira.

11. artikulua- Tarifa horien gainean eragiketa-bolumenaren, koefiziente bakarraren eta establezimenduak udalerrriaren barruan duen kokaleku fisikoak ponderatzen duen indizearen arabera ponderazio-koefizientea aplikatuko da.

VII. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA

12. artikulua.- 1.- Zergaldia egutegiko urtearekin bat etorriko da, alta adierazpena izan ezik, horretarako jarduera hasi denetik egutegiko urtea amaitu arte hartuko da kontuan, artikulua honetako 3.ean xedatutakoaren kalterik gabe.

2.- Zerga zergaldiaren lehenengo egunean sortzen da eta kuotak txikiezinak izango dira, alta adierazpen kasu batzuetan izan ezik, jarduera hasi den eguna egutegiko urtearekin bat ez datorrenean, horrela izanik kuotak urtea amaitzeko falta diren egutegiko hiruhilekoei proportzionalki kalkulatuko dira, jardueraren hasierarena barne.

3.- Baja adierazpenetan kuotak, baja eguna arte igarotako hiruhileko kopuruari proportzionalki kalkulatuko dira, kargapeko jarduera uzten den momentua barne, alta aurkezpenarekin batera gertatzen denean izan ezik, horrela bada, baja hurrengo urteko lehenengo egunetik edukiko ditu bere ondorioak.

4.- Ikuskizunen kasuan, kuotak ekitaldi bakarrak sortuta badatoz, sortzapena ekitaldi bakoitza egitetik dator, dagozkien deklarazioak arauz ezartzen den eran aurkeztu behar izango direlatik.

VIII.- ZERGAREN KUDEAKETA

13. artikulua.- 1.- Zerga bere matrikularen bidez kudeatuko da. Matrikula urtero sortuko da eta ekonomi jarduerak, subjektu pasiboak, zerga zorrak eta, hala denean, foru errekgua azaltzen duten zentsuek osatuko dute. Matrikula jendearen esku egongo da.

2.- Subjektu pasiboak beharturik daude altako aitorpen egokiak aurkeztera eta aurreko atalean adierazi diren elementu guztien berri ematera horiek matrikulan sartzeko. Ondoren, Udal administrazioak likidazio egokia egingo du eta likidazio horren berri jakinaraziko dio subjektu pasiboari, bidezkoa den diru sarrera egin dezan.

Halaber, subjektu pasiboak beharturik daude zergapeturiko jardueretan sortzen diren eta zerga honen ordainketan eragina duten aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridikoen berri jakinaraztera. Eta arauz zehaztutako epe eta terminoetan formalizatuko dira.

3.- Zerga ikuskapenaren edo alden eta komunikazioen formalizazioen ondorioz zentsuetan datuak sartzen, kentzen edo aldatzen badira, hori administrazio egintza izango da eta, horren ondorioz, zentsua aldatuko da. Matrikulan zentsuetako aribideko daturen bat aldatzen bada, azken horiek derrigorrez zentzu berean aldatu beharko dira.

Era berean, subjektuak, zergapeko jarduerak gauzatzean gertatzen diren aldaketa fisiko, ekonomiko nahiz juridikoak, zerga honen ondorioetarako garrantzitsuak direnak, jakinaraztera behartuta egongo dira, eta arauz zehaztutako epe eta terminoetan formalizatuko dira.

Partikularki, Foru Arauko 5. artikuluko 1. ataleko h) hizkian aurreikusten den salbuespena aplikatu ezin zaien subjektu pasiboek Zerga administrazioari jakinarazi beharko diete eragiketa-bolumena. Era berean, subjektu pasiboek eragiketa-bolumenean gertatzen diren aldaketak jakinarazi beharko dituzte, aldaketa horiek ordenantza honetako 7. artikuluko 1. ataleko h) hizkian aurreikusten den salbuespena aplikatzea edo ez aplikatzea suposatzen dutenean, edo eragiketa-bolumenaren arabera aurreikusten den ponderazio-koefizientea aplikatzearen ondorioetarako kontuan hartu beharreko tarteko aldaketaren bat denean.

4. Zerga hori autolikidazio-erregimenean exijitu daiteke, arauz ezartzen diren baldintzatan.

14. artikulua- 1.- Udal honi dagozkio ordainarazpenerako, kudeaketarako, likidaziorako, ikuskaritzarako eta zerga-bilketarako eskumenak, borondatezko epean nahiz premiamendu bidean.

2.- Eskumen-gaietan, Udalari dagokio matrikula, errekurtsoen eta erreklamazioen ebazpena, zergaren kobrantza, salbuespenen eta hobarien aplikazioa jendaurrean jartzea, eta zergadunari zerga horri buruzko informazioa eta laguntza emateko jarduerak gauzatzea.

3.- Foru Aldundiari bakarrik dagokio Matrikula eratzea eta kontserbatzea, jarduera ekonomikoak kalifikatzea eta kuotak zehaztea.

Aipatutakoaren kalterik gabe, egintza hauen jakinerazpena udalek zein Foru Aldundiak egin dezakete, tributu zorrak zehaztera jotzen duten likidazioen berriematearekin batera.

4. Udalari dagokio kobrantza-ordainagiria eratzea, Tokiko Ogasunei buruzko Foru Arauak aipatzen dituen kolaborazio-formulen kaltetan izan gabe. Udalek laguntza emango diote Foru Aldundiari matrikula eratu eta gordetzeko, hala nola ekonomi jarduerak kalifikatzeko eta kuota egokiak jartzeko ere.

5.- Salbuespenak emateko eta ukatzeko, beharrezko izango da, beti ere, Foru Aldundiaren alde zuzeneko txosten teknikoa, hartzen den ebazpena, gero, Aldundiari jakin erazi behar zaiolarik.

15. artikulua.- Jarduerak sailkatzeko eta kuotak finkatzeko egintzen aurka jartzen diren errekurtsu eta erreklamazioetarako, Bizkaiko Herrialde Historikoko Foru Tributu Arau Orokorrek xedatutakoa izango da aginduzko, aipatu errekurtsu eta erreklamazioak ebazteko organo eskuduna Bizkaiko Foru Aldundia izango delarik. Erreklamazio horiek jartzeak ez du egintzen beterrazpena etenen.

16. artikulua.- 1.- Foru Aldundiak egingo ditu udal bakoitzari dagozkion matrikulak, baita haiei bidali ere.

2.- Matrikulak jasota, udalek jendaurrean jarri beharko dituzte hamabost eguneko epean, ukitutako zergadunek haiek aztertu eta, kasuan kasu, egoki irizten dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten.

17.1. artikulua.- Jendaurreko erakustaldia amaitu eta erreklamazioak ebatzita, ondorioaren ziurtagiria bidaliko zaio Foru Aldundiari, beronek onar dezan.

2.- Onespena emanda, udalek kobrantzako ordainagiri egokiak egingo dituzte (lankidetzaren arauen kalterik gabe).

IX. AZKEN XEDAPENA

Udalaren plenoak 1991ko irailaren 20an onetsi zituen eta plenoaren erabakiz 1993ko azaroaren 26an, 1995eko urtarrilaren 27an, 1997ko urtarrilaren 31an, 1997ko abenduaren 19an eta 1999ko abenduaren 18an, 2000ko irailaren 29an, 2003ko azaroaren 28an, 2004ko azaroaren 26an, 2005eko azaroaren 25ean, 2006ko abenduaren 22an, 2011ko abenduaren 27an, 2012ko abenduaren 27an, aldarazi den ordenantzaren egungo testuak eta eranskinek ondoreak izango ditu 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta indarrean iraungo du bera aldaraztea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

I. ERANSKINA

Gutxienezko kuoten gehikuntzarako koefiziente bakarra **2,01**

II. ERANSKINA

Udal mugarteko bide publikoen koefizientea:

Lehena	1,82
Bigarrena	1,65
Hirugarrena	1,55
Laugarrena	1,40
Bostgarrena	1,30

III. ERANSKINA

Eragiketa-bolumenaren araberako ponderazio-koefizientea:

Eragiketa-bolumena	Koefizientea
2.000.000,00tik 6.000.000,00ra	1,20
6.000.000,01tik 50.000.000,00ra	1,22
10.000.000,01etik 50.000.000,00ra	1,24
50.000.000,01etik 100.000.000,00ra	1,27
100.000.000,00 baino gehiago	1,30

Eragiketa-bolumenik gabe

1,25